

Euskaraz solastatu, jolastu, kokatu, korapilatu...

eta bidean...

Zenbat gozamen eta zenbat min!

Eta betiko galdera: zenbat gara?

Zenbat gara?

Gaur hemen batzuk elkartu gara, baina gehiago izan behar dugu, gehiago izan nahi dugu. Ez baikara hona bizirauteko etorri. Ez gara apurrekin konformatzen.

Euskaraz bizi nahi dugu!

Eskubideez ari garelako, kultura eta identitate batez ari garelako, historia batez ari garelako eta baita etorkizun batez ere. Herri batez. Gutaz. Ez gehiago ezta gutxiago ere. Harrokeria gabe, baina harro. Euskaldunak gara eta izan nahi dugu!

2016an jaio zen Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua, gaurkoa bezalako egun batez, euskararen eguna ospatuz. Aiaraldean euskararen normalizazioa erdiestea dugu xede. Elkarlana tresna eta eskualdeko euskaldunak saretzea behar.

Kirolariekin, gazteekin, familiekin, ikastetxeekin, herri mugimenduarekin, etorri berriekin, euskara teknikariekin...

Jaietan, instituzioetan, kaleetan... Guztiekin eta guztietan egin nahi dugu lan.

Euskarak aurrera egin dezan. Euskaldunok aurrera egin dezagun.

Eremu guztietara eta guztiengana heldu behar da euskara. Denontzat, libre eta doan.

Amurrion abiatu ginen, gero Urduña etorri zen, Laudio jarraian, ondoren Luiaondo, Arakaldo ostean, iaz Artziniega, ostiralean Zollo eta gaur Arrankudiaga. Aiaraldea josiz goaz, elkar ezagutuz eta indarra batuz. Eskertu nahi dugu Arrankudiagako eta Zolloko elkarte eta norbanakoen inplikazioa eta laguntza gaurko jaia posible egiteko. Mila esker! Eskerrik asko bolondres guztiei eta gaur hona hurbildu zareten ikastetxeetako ordezkari, eragile eta norbanako guztioi. Biba zuek!

Eskerrik asko baita Arrankudiaga-Zolloko udalari emandako erraztasun guztiengatik eta emandako babesagatik. Baita eskualdeko gainerako udalei egin duten ekarpenagatik.

Pozik gara gaur hemen garelako. UEMAko udalerrri batean. Zeinetan pausu berriak ematen ari diren. Zeinean, adibidez, guraso batzuk euskara ikasteko pausua eman baitute, eskualdeko lehen Gurasoeuskaltegia osatuz. Txalo bat haientzako. Pausu gehiago etorriko dira, han eta hemen, eta horretarako lan egiteko prest gara. Pausu horiek behar ditugulako. Ezinbestekoak ditugulako.

Euskara... Gustua hartu, dastatu, murtzikatu, zikindu, laztandu, eta berarekin korapilatu. Gure territorio librean barneratu, ezagutu, lotu... Elkarrekin nahastu, arnastu, indartu eta gozatu. Aurten ere, Aiaraldean, euskararen eguna elkarrekin ospatzen baitugu.

Euskaraktibatu eta gurekin korapilatu!

Gora Arrankudiaga eta Zollo!

Gora Aiaraldea!

Eta gora euskara!!

## **Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua**

Aiaraldeko Euskararen Eguneko mezua

Arrankudiaga 2024/12/01

